



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko otsailaren 18a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea, zeinaren bidez arautzen baita Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 25. artikulua aldatzen duena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).
- Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako kulturaren egungo egoerari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zergatik Vianako Printzea Erakundea-Kultura Departamentuak ez duen exekutatu Parlamentuak baimendutako aurrekontuaren % 10,73, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Lizarrako Gobernadorearen Jauregian jarritako aldi baterako erakusketa 2011n luzatzeko Nafarroako Gobernuak dauzkan asmoei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Lizarrako Karlismoaren Museoa abian jartzeari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (10. or.).

- Galdera, Lizarrako Karlismoaren Museoko bildumari inaugurazioaz geroztik gehituriko piezen kopuruari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Administrazio publikoko teknikarien lanpostuak betetzeko oposizioari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen testu bategina aldatzen duen Foru Lege proiektua erretiratzeko, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (12. or.).
- Galdera, erlijioeko irakasleen lan-arazoei buruzkoa, José Andrés Burguete Torres jaunak egina (13. or.).
- Galdera, administrazio publikoan software librea instalatzeko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusia ote duen neurriren bat hartzea emakumeak nekazaritzan eta abeltzaintzan ari daitezen bultzatzeko, sustatzeko eta errazteko, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Tracasak egindako erosketei buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberan ziklo konbinatuko zentral berriak ezar daitezen baimentzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako irizpideei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Pirinioetako oihan-azpiegituren gaineko jarduerari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Kulturako Konferentzia Sektorialak autonomia erkidegoetako ordezkariekin eginiko bilerari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2010eko abenduaren 31koa (18. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea, zeinaren bidez arautzen baita Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak foru lege proposamen bat aurkeztu du, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea, zeinaren bidez arautzen baita Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147 eta 157. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Ele-dunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean foru lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea, zeinaren bidez arautzen baita Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru Lege proposamena hori irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea, zeinaren bidez arautzen baita Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeak egoera anomalo bat zuzendu zuen. 1987tik aitzina, Nafarroan errenta aitortpena egiteko eredu guztietan ageri da aipatu kuota hori elizari edo gizarte-intereseko beste xede batzuetara bideratzeko aukera, baina bigarrenaren aldeko hautua egiteak ez zeukan aplikazio zehatzik aurrekontuetan.

Foru lege hori onetsi zenez geroztik, legearen aplikazioan zenbait arazo gertatu direla detektatu da, eta gure ustez garrantzitsua da horiek zuzentzea. Zehazki, baldin eta PFEZeko % 0,7aren bidez ezarritako kontusailetakoren batzuk ez badira osorik edo hein batean betetzen kasuan kasuko aurrekontu-ekitaldian, garrantzitsua da kontuan hartzea zenbateko hori xede berarekin inbertitu behar dela milaka nafarrek adierazitako borondatea zorrotz eta zintzo beteko bada.

Beste horrenbeste egin behar da PFEZeko % 0,7ko funtsaren hartzaileei dagokienez, zehaztasunez definitze aldera bai zer entitatek hartuko dituzten funts horiek bai 2. artikulutik heldu diren mugak ere.

7. artikulua % 0,7ko funtsaren deialdiak egiteko erdua eta epeak zehazten ditu, eta artikulua horren espirituari hobeki egokitutako definizio bat egin beharko litzateke, ziurtatze aldera deialdiak

30 eguneko epean argitaratuko direla, urte bakoitzeko aurrekontuen legea indarrean sartzen denetik aitzina, hemen zehaztutakoari jarraikiz.

Azkenik, uste dugu beharrezkoa dela lege-gaikuntza bat egitea aurrekontu-ekitaldi batean sortutako gerakina hurrengo ekitaldiko % 0,7ko funtsean sar dadin, eta horretarako artikulua berri bat onestea proposatzen dugu.

1. artikulua. 2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testua:

a) Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtseko aipatu dirua soilik erabili ahalko da GKE-ek Nafarroan egiten duten lanerako. Horrenbestez, funts horren kudeaketatik kanpo geratzen dira administrazio publikoak, alderdi politikoak, unibertsitateak, sozietate zibilak, lanbide elkargoak eta aurrekoen antzeko berariazko xede eta izaera duten bestelako entitateak.

b) Artikulu honetan xedatuaren ondorioetarako, gobernuz kanpoko erakundeak dira zuzenbide pribatuko entitateak, legez eraturik daudenak eta irabazi asmorik ez dutenak, baldin eta beren xedean artean edo berariazko helburu gisa baldin badute, bere estatutuei jarraikiz, 3. artikuluan ezarritako printzipioekin eta helburuekin lotutako jarduerak egitea. Gobernuz kanpoko erakundeek gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, eta beren helburuen lorpenera behar

bezala ziurtatzeko moduko egitura eduki beharko dute.

2. artikulua. 7. artikulua aldatzeko

Nafarroako Gobernuak jardueren multzo bakoitzari buruzko deialdia argitaratuko du, urte bakoitzeko aurrekontuen legeak indarra hartu ondoko hogeita hamar eguneko epean gehienez ere, edo aurreko aurrekontuak luzatuz ematen diren egunetik, kasua bada, Gizarte Ongizateko, Garapenerako Lankidetzako eta Ingurumeneko Nafarroako kontseiluek irizpena eman ondoren; irizpen horretan, Nafarroako Gobernuak ahal den adostasun handiena lortzea bilatuko du. Halaber, PFEZaren kanpainetan zehar, zergadunentzako behar adina informazio emanen da laukitxoak markatzeko dauden aukerei buruz, bai eta foru lege horren bidez finantzatzen diren programei buruz ere.

3. artikulua. PFEZeko % 0,7ko funtsaren kargura finantzatutako kredituak hurrengo ekitaldikoei batuko zaizkie baldin eta kasuko ekitaldia itxitakoa erabili gabe badaude, diruzaintza-gerakin gisa batu ere, foru lege honetan ezarritako helburuak asetze aldera.

Xedapen iragankor bakarra. 3. artikuluan xedatutakoak 2010eko aurrekontu-ekitaldiaren itxieratik aitzina izanen ditu ondorioak.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 25. artikulua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 25. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapida dadin eskatu du.

Kontuan izanda, Erregelamenduaren 151. artikuluekin bat, Foru Lege honen aldaketa onesteko gehiengo osoa behar dela eta, Erregelamenduaren 152. artikuluen babesean, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldea aipatu proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzearen kontra agertu dela, prozedura arruntaz izapidetu behar da.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 25. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 25. artikulua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen ditu-

enak, eta lege testu hori aldatu duten ondoko foru legeek ere, ez dute deus ezarri Nafarroako herritarrek beren eskubide zibilak egikaritzeko baliatzen dituzten boto-txartelak eta horietarako gutun-azalak Nafarroako bi hizkuntzetan egon daitezzen.

Aipatu legea onartu eta gero hartu zuen indarra Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak. Lege horren 2.1 artikulua gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekitako ezarri zituen eta, horren ondorioz, herritar guztiei hizkuntza horiek jakin eta erabiltzeko eskubidea aitortu zien.

Beraz, 16/1986 Foru Legea ez dago 18/1986 Foru Legeak Nafarroako hizkuntzekiko nafar guztiei aitortutako eskubideetara egokituta. Horregatik, hauteskundeetan boto emateko momentuan, hau da, nafarren eskubide zibilen egikaritzeko oinarrizko jarduera horretan, Nafarroako bi hizkuntzak agertzea bidezkoa da eta justifikatuta dago.

Gainera, Nafarroa bezala elebidunak diren Estatuko bertze autonomia erkidegoek lege proposamen honek eskatzen duen moduan jokatzeko dute.

Bertzalde, proposatutako aldaketak diru aurrezteka ekarriko du boto-txartelen eta horietarako gutun-azalen argitalpen desberdinak eta banaketa berezitua egin beharrean, argitalpen eta banaketa bakarra eginen bailirateke.

Hori horrela, honako hau da proposatzen den aldaketa:

Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 25. artikuluen 1. idatz-zatiari paragrafo berri bat eransten zaio. Hona haren testua (euskaraz eta gaztelaniaz):

“Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan erabiltzen diren boto-txartelak eta horietarako gutun-azalak Nafarroako bi hizkuntzetan idatziko dira, euskaraz eta gaztelaniaz, formatu elebidun eta bakarrean”.

“Las papeletas y sobres de votación que se utilicen en las elecciones al Parlamento de Navarra se redactarán en las dos lenguas de Navarra, euskera y castellano, en formato bilingüe único”.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2011ko otsailaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkar-teeak aurkeztu eta 2010eko azaroaren 9ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Lege

proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Foru Araubideko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2011ko martxoaren 14ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahalko dizkio te proposamenari.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2011ko otsailaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu eta (2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzeko

Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2011ko martxoaren 14ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahalko dizkio te proposamenari.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2011ko otsailaren 22ko eguerdiko hama-biak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2009ko martxoaren 30eko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako kulturaren egungo egoerari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako kulturaren egungo egoerari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Kulturaren egungo egoera Nafarroan

Kultura eta Turismoko kontseilariak zer balorazio egiten du kulturak Nafarroan egun bizi duen egoeraz, kalitateari eta berrikuntzari dagokienez?

Iruñean, 2011ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zergatik Vianako Printzea Erakundea-Kultura Departamentuak ez duen exekutatu Parlamentuak baimendutako aurrekontuaren % 10,73.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Vianako Printzea Erakundea-Kultura Departamentuak ez duen exekutatu Parlamentuak baimendutako aurrekontuaren % 10,73.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

2010ean Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak zergatik ez du bete Parlamentu honek baimendutako aurrekontuaren % 10,73?

Iruñean, 2011ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Lizarrako Gobernadorearen Jauregian jarritako aldi baterako erakusketa 2011n luzatzeko Nafarroako Gobernuak dauzkan asmoei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Gobernadorearen Jauregian jarritako aldi baterako erakusketa 2011n luzatzeko Nafarroako Gobernuak dauzkan asmoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrásék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2011rako aurreikusitako aldi baterako erakusketen programari buruzko galdera hau aurkeztu du, Batzordean ahoz erantzun dadin:

Lizarrako Udalak Nafarroako Gobernuari laga zion Gobernadorearen Jauregia deiturikoa, Austriarren garaiko arkitektura madrildarraren eredu bikaina, bertan Karlismoaren Museoa jar zedin, Nafarroako Parlamentuak Gobernuia premiatu baitzuen Egaren hirian jartzera museoa.

Hamarkada bat geroago, zenbait atzerapenen ondoren, eraikina goitik behera zaharbertitzeko

bost milioi euro baino gehiago ordainduta, museoak 2010eko martxoan ireki zituen ateak.

Orain dela gutxi hedabideek jaso zuten albistearen arabera, museoaren inauguraziorako aurreikusitako aldi baterako erakusketa 2011 osoan zehar luzatuko da, nahiz eta hasierako ideia zen urtero erakusketa berri bat egitea.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuaren asmoa al da museoa inauguratu zenetik dagoen aldi baterako erakusketa 2011 osoan zehar luzatzea? Albistea egia baldin bada, zein da erakusketa luzatzeko arrazoia?

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Lizarrako Karlismoaren Museoa abian jartzeari buruzkoa.**ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Karlismoaren Museoa abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzeta.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrásék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Karlismoaren Museoaren bisitari kopuruari eta abian jarritako programa didaktikoei buruzko galdera hau aurkeztu du, Batzordean ahoz erantzun dadin:

Lizarrako Udalak Nafarroako Gobernuari laga zion Gobernadorearen Jauregia deiturikoa, Austri-

arren garaiko arkitektura madrildarraren eredu bikaina, bertan Karlismoaren Museoa jar zedin, Nafarroako Parlamentuak Gobernuia premiatu baitzuen Egaren hirian jartzera museoa.

Hamarkada bat geroago, zenbait atzerapenen ondoren, eraikina goitik behera zaharbertitzeko bost milioi euro baino gehiago ordainduta, museoak 2010eko martxoan ireki zituen ateak.

Iragan otsailaren 1ean Museoaren Batzorde Zientifiko Aholku-emailea bildu zen, eta bere lehen urtean museoak izandako martxari buruzko informazioa jaso zuen. Xehetasunen berri izateko, ondokoa jakin nahi dugu:

– Orain arteko bisitari-kopurua.

– Egindako eskola-bisiten kopurua eta parte-hartzaileen kopurua guztira.

• Lehen Hezkuntza/Bigarren Hezkuntza

• Nafarroa/Beste erkidego batzuk

– 2011rako aurreikusitako bisita gidatuen egutegia

– Balorazio orokorra

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Lizarrako Karlismoaren Museoko bildumari inaugurazioaz geroztik gehituriko piezen kopuruari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Karlismoaren Museoko bildumari inaugurazioaz geroztik gehituriko piezen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Lizarrako Karlismoaren Museoko bildumari 2010eko martxoan ireki zenez geroztik gehituriko piezen kopuruari buruzko galdera hau aurkeztu du, Batzordean ahoz erantzuteko:

Lizarrako Udalak Nafarroako Gobernuari laga zion Gobernadorearen Jauregia deiturikoa, Austri-

arren garaiko arkitektura madrildarraren eredu bikaina, bertan Karlismoaren Museoa jar zedin, Nafarroako Parlamentuak Gobernuari premiatu baitzuen Egaren hirian jartzera museoa.

Hamarkada bat geroago, zenbait atzerapenen ondoren, eraikina goitik behera zaharberritzeko bost milioi euro baino gehiago ordainduta, museoak 2010eko martxoan ireki zituen ateak.

Museoak objektiboki interesa duen arren, Kultura eta Turismo Batzordeak museora iaz egin zuen bisitan agerian gelditu zen erakunde horrek garaiko pieza gutxi dituela. Bisita hartan, bai eta gero egindako agerraldietan ere, Nafarroako Gobernuaren arduradun politikoez azpimarratu dute museoaren irekiera akuilua izanen zela erakundearen eta partikularren esku zeuden piezak museoari emateko, egungo bilduma osatuz hartara.

Aurtengo bilakaeraren berri izateko, ondokoa jakin nahi dut:

- Museoa 2010eko martxoan inauguratu zenez geroztik, zenbat pieza gehiago gehitu zaizkio bildumari? Zer ezaugarri dituzte pieza horiek, baldin badaude?

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Administrazio publikoko teknikarien lanpostuak betetzeko oposizioari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Administrazio publikoko teknikarien lanpostuak betetzeko oposizioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin du administrazio publikoko teknikari (arlotik) izateko lanpostuak betetzeko oposizioari buruz.

Iragan ostiralean, otsailaren 4an, administrazio publikoko teknikari (arlotik) izateko lanpostuak betetzeko oposizioari emaitzak eman ziren jakitera. Emaitzek zenbait oposiziogile kezkatu dituzte, eta horiek argi eta garbi adierazi dute beren nahigabea, erabili den sistemak ez zuelako parte-hartzaileen anonimotasuna ziurtatzen eta parte-hartzaileen eta epaimahai kalifikatzaileko pertsonen edo Nafarroako Gobernuak langileen arteko lotura egon zitekeelako.

Galderaren testua

• Aurrekari horiek ikusita, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondokoa jakin nahi du: Kontuan hartuta esparru horretako aurreko beste deialdi batzuetan parte-hartzaileen anonimotasuna ziurtatu dela, Nafarroako Gobernuak nola justifikatzen du parte-hartzaileen anonimotasuna ziurtatzen ez duen sistema bat erabili izana orainoan?

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen testu bategina aldatzen duen Foru Lege proiektua erretiratzeko.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen testu

bategina aldatzen duen Foru Lege proiektua erretiratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Orain ia urtebete, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Testu Bategina aldatzen zuen Foru Lege proiektua aurkeztu zuen, Parlamentuan izaipidetzeko.

2010eko otsailaren 22ko Eledunen Batzarrak txostena egin zezan eskatu zion Nafarroako Kontseiluari, jakiteko ea irizpena araudi instituzionalari eta organikoari egokitzen zaien.

Nafarroako Kontseiluak maiatzaren 17an eman zuen 29/2010 Irizpena.

Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko galdera

• Nafarroako Gobernuak ba al du Foru Lege proiektu hori erretiratzeko asmorik?

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, erlijio-irakasleen lan-arazoei buruzkoa.

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztutako galdera, erlijio-irakasleen lan-arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteari atxikitako José Andrés Burguete Torres foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

696/2007 Errege Dekretuak arautzen du funtzionario irakasleen kidegoetakoak izan gabe ikastetxe publikoetan Hezkuntzari buruzko maiatzaren

3ko 2/2006 Lege Organikoko hirugarren xedapen gehigarrian araututako erlijio-eskolak ematen dituzten erlijio-irakasleen lan-harremana.

Errege Dekretuko xedapen gehigarri bakarrean adierazten denez, "funtzionario irakasleen kidegoetakoak ez diren erlijio-irakasleek lan-kontratu mugagabea izanen dute modu automatikoan baldin eta errege dekretu hau indarrean sartzen denean kontraturik baldin badaude, errege dekretu honetan ezarritako moduan hain zuzen ere, non eta ez den gertatzen lan-kontratu amaitze aldera 7. artikuluan ezarritako zioetakoren bat edo lan-kontratu ez den formalizatu Langileen Estatutuko 15.1.c) artikularekin bat, hau da, lan-harremanaren titularra ordezkatzeko".

Horregatik guztiagatik, idatziz erantzuteko ondoko galdera egiten diogu Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariari:

Hezkuntza Departamentuak zer proposamen egingen ditu Nafarroako Foru Komunitateko erlijio-irakasleen lan-problematika konpontzen joateko eta 696/2007 Errege Dekretutik heldu den espiritarekin bat kolektibo horren lan-egonkortasuna areagotzen joateko?

Iruñean, 2011ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, administrazio publikoan software librea instalatzeko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, administrazio publikoan software librea instalatzeko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu ditu Nafarroako Administrazio Publikoan software librea jartzeko?

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusia ote duen neurriren bat hartzea emakumeak nekazaritzan eta abeltzaintzan ari daitezen bultzatzeko, sustatzeko eta errazteko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusia ote duen neurriren bat hartzea emakumeak nekazaritzan eta abeltzaintzan ari daitezen bultzatzeko, sustatzeko eta errazteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du neurriren bat hartzea emakumeak nekazaritzan eta abeltzaintzan ari daitezen bultzatzeko, sustatzeko eta errazteko?

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Tracasak egindako erosketei buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Tracasak egindako erosketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Tracasak eginiko zenbait erosketari buruz bildutako informazioen arabera, eta kontuan hartuta informazio ahalik eta zabalena eduki behar dela Parlamentuak Gobernuaren eta enpresa publikoen jardunaren kontrola egiteko, ondokoa jakin nahi dut:

1. Tracasak irudiak hartzeko kamera digital fotogrametrikoa noiz erosi zen? Zer preziotan erosi zen? Zer prozedura baliatu zen? Nori esleitu zitzaion?

2. Informazio hori atzitzeko erabiltzen den hegazkinari dagokionez, noiz izan da eta zein izan dira prozedura, zenbatekoa eta esleipen-hartzailea?

3. Plataforma birakari-egonkorgailua, lidar-a, hegaldiak kontrolatu eta planifikatzeko softwarea eta datuak prozesatzeko softwarea noiz eta zenbatean erosi ziren? Zer prozedura baliatu zen bitarteko horiek erosteko?

4. Bitarteko horiek gidatzeko, maneiatzeko eta kontrolatzeko langile espezifikoak kontratatu al dira? Hala baldin bada, noiz eta zer sistema baliatuta kontratatu dira?

5. Zer sistema baliatu da inbertsio horiek finantzatzeko? Inbertsioak zer eragin du urtero enpresaren aurrekontuetan, gastuei dagokienez, erosketa egin zenez geroztik? Eta diru-sarreretan? Defizita eragiten baldin badu, zergatik gertatzen da defizita?

6. Erosketa egin zenez geroztik, zenbat zerbitzu eta zenbat kontratazio egin dira urtez urte? Zein izan da horien zenbatekoa, zerbitzu publikoak eta pribatuak, foru erkidegokoak eta beste erkidego batzuetakoak edo herrialde batzuetakoak bereizita?

7. Nafarroako Gobernuaren eta Tracasaren arteko urteroko mandatua aldatu al da foru lurraldearen ortofotoa egiteko?

8. Zein izan da ortofotoa egitearen urteko kostua ogasun publikoarentzat, aurreko bitartekoak eta egungoak alderatuta?

Bitarteko berri horiek edukitzearen ondorioz, zer beste zerbitzu berri kontratatu dira Nafarroako Gobernuarekin, haren mendeko erakunde autonomekin edo entitateekin eta sektore publikoko enprekin? Bereizi zerbitzuak, diru-sarrerak eta entitate kontratu-hartzailea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Nafarroako Erriberan ziklo konbinatuko zentral berriak ezar daitezten baimentzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako irizpideei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Erriberan ziklo konbinatuko zentral berriak ezar daitezten baimentzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Gobernua zer irizpide ari da baliatzen, Nafarroako Erriberan eta, zehazki, Castejon ziklo konbinatuko zentral berriak ezar daitezten baimentzeko?

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Pirinioetako oihan-azpiegituren gaineko jarduerari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Pirinioetako oihan-azpiegituren gaineko jarduerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Pirinioetako baso-azpiegiturak da Nafarroa 2012 Planeko 69. jarduketa. Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Zer azpiegitura egin dira Pirinioetan Nafarroa 2012 Planaren baitan?
- Zenbat diru erabili da horretan?
- Zer lanpostu sortzea ekarri dute obra horiek?
- Noizko aurreikusten da egingen dela 69. jarduketa horren ehuneko ehun?

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko

Galdera, Kulturako Konferentzia Sektorialak autonomia erkidegoetako ordezkariekin eginiko bilerari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Román Felones Morrás jaunak erretiratu duela Kulturako Konferentzia Sektorialak autonomia erkidegoetako ordezkariekin eginiko bilerari buruz-

ko galdera. Galdera hori 2010eko abenduaren 23ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2010eko abenduaren 31koa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.2 artikulua xedatzen du Mahaiak urtero presatutako duela Legebiltzarreko funtzionarioen zerrenda, urtean urteko abenduaren 31ko egoeraren arabera, eta bertan agertuko direla funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio egoera.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak 2010eko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrendarako eginko proposamena, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuan 2010eko abenduaren 31n lanean ari ziren funtzionarioen honako zerrenda onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IZEN-ABIZENAK	MAILA	GRADUA	LANPOSTUAK	ADMINISTRAZIO EGOERA
IDAZKARITZA NAGUSIA				
DÍEZ LAGO, PABLO Mahaiko eta Eledunen Batzarreko idazkaritza	A	7	Legelari nagusia	Aktiboa
ALFARO ERVITI, C.	C	7	Administrari burua	Aktiboa
LASECA ESCUER, JOSE RAMÓN	C	6	Administraria	Aktiboa
ZERBITZU JURIDIKOAK				
ESPARZA OROZ, MIGUEL	A	7	Legelari nagusiaren ondokoa	Aktiboa
BERMEJO GARDE, MOISÉS	A	7	Legelaria	Zerb. bereziak
PULIDO QUECEDO, MANUEL	A	6	Legelaria	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	A		Legelaria	
ZERBITZU OROKORRAK				
CERRO PAÚL, FRANCISCO J. DEL	B	7	Zerb. Orokorretako burua	Aktiboa
LARRAÑETA LIZARRONDO, M ^a VICTORIA	B	7	Teknikari diplomatua	Aktiboa
ZOZAYA GARRALDA, SERGIO	B	2	Administrazio kudeaketako teknikaria	Aktiboa
LOYOLA ERASO, PEDRO	A	5	Informatikako goi mailako teknikaria	Aktiboa
ARANAZ JIMÉNEZ, EDUARDO	B	3	Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Zerbitzu eginkizunetan
MARZAL PARRA, M ^a ASUNCIÓN	B	4	Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Aktiboa
ARDAIZ EGÜÉS, ÁNGEL	C	6	Administraria	Zerb. bereziak
BEAR SANZ, CARLOS	C	6	Administraria	Aktiboa
DÍAZ DE RADA TURUMBAY, JUANA	C	7	Administraria	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	C		Administraria *	
LEZÁUN JUÁNIZ, MARAVILLAS	C	6	Administraria	Zerb. bereziak

IZEN-ABIZENAK	MAILA	GRADUA	LANPOSTUAK	ADMINISTRAZIO EGOERA
Gelazain nagusia				
ANSORENA URRIZA, ANTONIO	D	5	Gelazain nagusia	Aktiboa
ADOT LOPERENA, M ^a ÁNGELES	D	5	Gelazaina	Aktiboa
ARIZCUREN REY, M ^a ÁNGELES	D	6	Gelazaina	Zerb. bereziak
FADRIQUE GARDE, ISABEL	D	7	Gelazaina	Aktiboa
ENECOIZ SEGURA, FLORENCIO	D	4	Gelazaina	Aktiboa
MARTÍNEZ ORDUÑA, M ^a JESÚS	D	5	Gelazaina	Zerb. bereziak
MONEO MARTÍNEZ, M ^a INÉS	D	5	Gelazaina	Aktiboa
TORRES IBARROLA, JESÚS M ^a	D	6	Gelazaina	Aktiboa
URMENETA MARÍN, OLGA	D	5	Gelazaina	Zerb. bereziak
VENTURA ARBILLA, ANA ISABEL	D	6	Gelazaina	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	D		Gelazaina	
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA				
GIL MARTÍNEZ, CARLOS JAVIER	A	6	Prentsako burua	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	A		Komunikazio teknikaria	
ARANA BAREÑO, ANDER	A	3	Itzultzailea	Aktiboa
ARISTEGUIETA OQUIÑENA, XABIER	A	3	Itzultzailea	Aktiboa
IRIARTE CILVETI, MIKEL	A	4	Itzultzailea	Aktiboa
IRIZAR APAOLAZA, ANDER	A	3	Itzultzailea	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	A		Itzultzailea	
MENA GARCÍA, TOMÁS	B	4	Protokoloko teknikaria **	Aktiboa
ARMENDÁRIZ SENBEROIZ, BELÉN.	C	6	Administraria	Aktiboa
MIGUÉLIZ GARCÉS, IÑAKI	C	5	Administraria *	Aktiboa
ARANAZ MARTÍ, CARLOTA	C	5	Transkriptorea	Aktiboa
HUARTE CAMPIÓN, ANA ISABEL	C	6	Transkriptorea	Aktiboa
PALMA ROMERO, FRANCISCA	C	6	Transkriptorea	Aktiboa
SÁENZ GARCÍA, M ^a CARMEN	C	5	Transkriptorea	Eszedentzia berezian
SANTIAGO SEGOVIA, IÑAKI DE	C	5	Transkriptorea *	Aktiboa
SEVINÉ RUIZ, MERCEDES	C	3	Transkriptorea	Aktiboa
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA				
FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, LUIS JAVIER	A	6	Artxibo eta Liburutegiko burua	Aktiboa
ITURRI VILLANUEVA, ARACELI	B	3	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Aktiboa
ALEGRÍA GOÑI, M ^a CARMEN	B	3	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Aktiboa
MITXELENA ENBIL, IZASKUN AMAIA	C	5	Administraria *	Aktiboa
BORDA OLAGÜE, CARMEN	C	6	Administraria	Aktiboa
KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERBITZUA				
ZULET RECALDE, FERNANDO	B	6	Kontu-hartzailezako burua	Aktiboa
VIDÁN ASTIZ, LAURA	B	2	Administrazio kudeaketako teknikaria	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	B		Administrazio kudeaketako teknikaria	
FERNÁNDEZ GELOS, M ^a VICENTA	C	6	Administraria	Aktiboa
PÉREZ DE RADA ARISTEGUI, M ^a EUNATE	C	7	Administraria	Aktiboa
NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA				
BALDUZ GIL, JORGE	B	2	Administrazio kudeaketako teknikaria	Aktiboa
ECHEVERRIA UHALTE, CELINA	C	7	Administraria	Aktiboa
LAINZ GIL, MAR	C	6	Administraria	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	C		Administraria	
LANPOSTU HUTSA	D		Gelazaina	

(*) Euskarazko titulua nahitaezkoa duen lanpostua

(**) Ingelesezko titulua nahitaezkoa duen lanpostua

